



# Jose Antonio Garmendia nagusi Zaldibiko Ardiki Eguneko lehian

**GAZTA LEHIAKETA** ▶ Orendaingo Zelaieta baserriko jabeak irabazi zuen igandeko lehia, Iosu Oiartzabalen eta Gerardo Garmendiaren aurretik

**MONDEJU LEHIAKETA** ▶ Kaietana Etxeberria eta Martina Garmendia ama-alabak bigarren eta hirugarren; Maria Luisa Morearen atzetik ▶ 5



**Itzalak taldearen emanaldi arrakastatsua Leitzan**

**TOLOSA** ▶

### Berdindu egin dute Tolosak eta Oriokok

«Gola falta zaigu», adierazi dute urdinen ordezkariak ▶ 2

**ZIZURKIL** ▶

### Abian dute haurren ipuin lehiaketa

Abenduaren 1a arte aurkez daitezke lanak udaletxean ▶ 4

**LEITZA** ▶

### Joko ona eta emaitza hobea lortu du Aurrerak

4-2ko emaitzarekin irabazi diote Bidezarra taldeari ▶ 7

**TOLOSA** ▶

### Laskorainek lehenengo porrota ▶ 3

**HITZA, egunero zure etxean jaso nahi baduzu deitu**

**943 30 43 46**

Edozein kexa, iradokizun edo kezka argitzeko ere bai

**LEITZA** ▶ Nerea Erbiti leitzarrak, Nerea Urbizu lekunberritarak eta Iñigo Agirre tolosarrak osatzen duten Itzalak taldeak bere lehen kontzertua eskaini du berriki Leitzako zinema aretoan, eta arrakastatsua izan da oso. Adin guztietako jendea erakarri zuen musika emanaldiak; hainbat euskal talde edota kantariaren abestien bertsioak egin zituzten musikari gazteek batik bat, guztiak ere haiek moldatutakoak. Haiek sortutako beste hiru kantu ere eskaini zituzten: *Maldan beheara*, *Nolakoa* eta *Blue boussa doinuarentzat* sortutakoa. Ekitaldia amaitutakoan taldekideek adierazi zuten, «oso urduri» zeuden emanaldia hasterakoan, eskaintzen zuten lehen kontzertua zelako: «Ez genuen hainbeste jende espero, eta harritu eta ikaratu ere egin gara, baina behin barrenera sartu garenean eta abesten hasi... azkenik, oso gustura aritu gara eta jendea ere halaxe nabaritu dugu». Aurrerantzean kantugintzaren bideari jarraituko dio Itzalak taldeak, itzala eraginez. JAIONE ASTIBIA ▶ 7

ASTEBURUKO ESKUALDEKO KIROL EMAITZAK ▶

ARETO FUTBOLA

Emakumezkoen  
Ohorezko Maila.

Hegoalde-Meiras	7-1
Saillkapena ▶	
1. Femesala Elx	18 puntu
2. UCAM Murtzia	16 puntu
3. Ourense	15 puntu
4. Foticos Zaragoza	15 puntu
5. Futsi Navalcarnero	14 puntu
6. Ketail Fuenlabrada	13 puntu
7. Club Teledeportivo	10 puntu
8. Diamante Rioja	9 puntu
9. Soto del Real	7 puntu
10. Gironella	5 puntu
<b>11. Hegoalde Tolosa</b>	<b>4 puntu</b>
12. Mostoles	4 puntu
13. Arturo Eyries Valladolid	3 puntu
14. Valdetires Meiras	3 puntu
15. Goierri Urrethue	1 puntu
16. Cabanyal Valencia	1 puntu

1. Maila A.

Ultzama-Ibarra 6-3

1. Maila B.

Inbaurrendoko Inter-Laskorain 7-5

Jubenilen Maila.

Lauburu-Tomas Mingot 12-5

ESKU PILOTA

ELKARTEEN ARTEKOA

Gazteen 2. Maila.

Aurrera Saiaz-Zarautz 2 22-01  
(Axier Telleria-Xabier Galarraga)

Nagusien 1. Maila.

Aurrera Saiaz-Eibar 16-22  
(Mikel Belloso-Julen Mujika)

Nagusien 3. Maila.

Aurrera Saiaz-Zumaia 22-06  
(Ugaitz Renobales-Aimar Galarraga)  
Aurrera Saiaz-Ilunpe 2 15-22  
(Unai Aspe-Ion Orbeago)

FUTBOLA

Gorengo Maila.

Tolosa-Orioko	0-0
Saillkapena ▶	
1. UPV/EHU	18 puntu
2. Ordizia	16 puntu
3. Urola	15 puntu
4. Mutriku	15 puntu
<b>5. Tolosa</b>	<b>15 puntu</b>
6. Real Union B	14 puntu
7. Zarautz	14 puntu
8. Arexabaleta	14 puntu
9. Touring	13 puntu
10. Anaitasuna	13 puntu
11. Hondarribia	13 puntu
12. Pasajes	12 puntu

13. Mondragon	11 puntu
14. Trintxerpe	11 puntu
15. Orioko	11 puntu
16. Zestoa	11 puntu
17. Beti Gazte	9 puntu
18. Aloña Mendi	8 puntu
19. Oiarzun	6 puntu
20. Bergara	4 puntu

Nesken Liga.

Luberri-Tolosa 1-1

Lurraldeko

1. Maila.

Aurrera-Bidezarra	4-2
Ordizia-Tolosa B	0-2
Saillkapena ▶	
1. Martutene	17 puntu
2. Allerru	14 puntu
3. Lengokoak	13 puntu
4. Irun 1902	12 puntu
5. Astigarragako	12 puntu
6. Beti Ona	11 puntu
7. Ostadar	10 puntu
8. Euskalduna	10 puntu
9. Roteta	9 puntu
10. Behobia	8 puntu
11. Gure Txokoa	7 puntu
12. Ordizia	7 puntu
13. Vasconia	6 puntu
14. Mariño	5 puntu
15. Amara Berri	4 puntu
<b>16. Tolosa B</b>	<b>4 puntu</b>

Lurraldeko

2. Maila.

Lasarte Oriá-Intxurre	0-1
Danena-Usurbil	1-1
Amaroz-Sanpedrotarra	2-3
Saillkapena ▶	
1. Sanpedrotarra	16 puntu
<b>2. Danena</b>	<b>12 puntu</b>
<b>3. Amaro</b>	<b>9 puntu</b>
4. Lazkao	7 puntu
5. Usurbil	7 puntu
<b>6. Intxurre</b>	<b>6 puntu</b>
7. Lasarte Oriá	3 puntu

Jubenilen Euskal Liga.

Zugatarte-Tolosa 2-1

Jubenilen 1. Maila.

Intxurre-Behobia 3-2  
Billabona-Internacional 2-3

Kadeteen Euskal Liga.

Tolosa-Antiguoko 0-2

FUTBOL 7

1. Maila.

Ibarrako GA-Bataplán	1-3
Lanbroa Dickens-Easo Motor	1-2
Saillkapena ▶	
1. Robers	15 puntu
2. Knauf-Dec. Nuñez	14 puntu
3. Zibibbo Dance Club	13 puntu

4. Bataplán	12 puntu
5. Zardoya Otis	11 puntu
6. Callejo Lanperna	9 puntu
7. Perku taberna	8 puntu
<b>8. Lanbroa Dickens</b>	<b>8 puntu</b>
9. Kroms	7 puntu
10. Bar Ignacio-Hondarribia	7 puntu
11. La Kabutzia	6 puntu
12. St. Etienne Cafe Bar	5 puntu
13. Irish Guinness	5 puntu
14. Easo Motor	5 puntu
15. Cesar Rueda Seguros	3 puntu
<b>16. Ibarako Gazte Asanblada</b>	<b>3 puntu</b>

2. Maila A.

Bar Shanti Kiroalak-Ikena	2-1
Saillkapena ▶	
1. Pub Egarrí	16 puntu
2. Disco Bar Egur	13 puntu
<b>3. Bar Shanti Kiroalak</b>	<b>13 puntu</b>
4. Ekin Fisioterapia Zentrua	11 puntu
5. R. Izkina-Pasaia	10 puntu
6. Ikena	10 puntu
7. Taberna Dani	9 puntu
8. Eibartarra Dance Club	9 puntu
9. Ron Cartavio	8 puntu
10. Akelena sagardotegia	8 puntu
11. In the line	7 puntu
12. Encofrados Iguzuri	7 puntu
13. Cabo Rojo-Pyxies	4 puntu
14. Nin Climatizacion	3 puntu
15. Ferrmax Instalaciones GC 2	3 puntu
16. Papeleria Tamayo	2 puntu

TOLOSA ▶ FUTBOLA

# «Gola falta zaigu»

«Partida gogorra» jokatu zuten Gorengo Mailako Tolosak eta Oriokok; lehia bizia izan arren, hutsna amaitu zuten

LEIRE MONTES

«Partida gogorra» jokatu zuten Tolosak eta Oriokok Berazubín. Lehia bizia eta faltak izan ziren nagusi; txartel kopurura begiratzeara besterik ez dago horretaz jabetzeko. Bi taldeak gogotsu borrokatu ziren arren, zaleek ez zuten golik ikusteko aukerarik izan.

Parekotasun handikoa eta erritmo bizikoa izan zen lehen-dabiziko zatia. Elolak eta Oruek gol aukera bana izan zuten, baina Alkorta atezainak primeran erantzun zien urdinen erasoiei. Lehiatz gain, sarrera gogorak ere izan ziren lehen zatia-aren ezaugarri: «Oriokok sarre-rra ugari egin zizkigun, horietako asko txartel gorria erakusteko modukoak. Epaileak ez zuela zuzen jokatu uste dut: or-



Tolosa eta Zarautz, aurrez aurre, Berazubín, artxiboko irudian. J.SAIZAR

TOLOSA ▶ 0

**Tolosa.** Apeztebea, Gorka, Garmendia (Christian, 70m.), Romero, Aimar, Pablo (Garagarza, 31m.), Orue, Prados, Elola (Aranguren, 70m.), Regillaga eta Lasa (Ekaitz, 62m.).

**Orioko.** Alkorta, Arruti, Josu, Santxex, Goikoebea, Saez, Balda, De la Parra, Olaizola (Makazaga, 71m.), Padrones (Aranzabal, 65m.) eta Jaure (Lizarazu, 80m.).

ORIOKO ▶ 0

duan moztu behar zituen jokaldi gogor horiek; partida bideratzen hasi zenerako, berandu zen jada», azaldu dio HITZARI Jose Mari San Sebastian Tolosako delegatuak.

Joko gogorak bigarren zatian ere jarraitu zuen. «Falta faltaren atzetik. Horixe izan zen Oriokoren jokatzeko era. Atzean sartu ziren, eta defentsa le-rrero hori pasatzea dezente kostatu zitzaigun». Aimarrek huts egin zuten atezainaren aurrean, eta Ekaitzek eta Pradosak ere ez zuten asmatu jokaldia amaitzen. Tolosak denboraldi guztian egiten ari den akatsa errepikatu zuen, beste behin: «Gola falta zaigu. Partidan sartuta aritu ginen, eta joko ona eskal- ni, gainera. Baina berdin jarraitzen dugu. Iritsi iristen gara; ate aurrean huts egiten dugu, ordea».

Lau baja garrantzitsu

Ilunbek eta Haritzek lesionatu-rik segitzen dute. Bi baja horiei Blancorena eta Pablarena ge- hitu zaizkie orain. Blancok me- nisko lesioa du; ezin izan zuten igandean jokatu, eta gutxienez bi hilabete beharko ditu osa- tzeko. Artolak orkatila bihurri- tu zuten Oriokoren kontrako partidaren eta ezin izango du da- torren asteburuko jokatu. Da- torren jardunaldian Zumarra- gan jokatu dute urdinean, Urola taldearen aurka.

TOLOSA ▶

## III. Urdina Txiki Saria jokatu dute igandean

Parte hartu nahi dutenek elkartera joan behar dute, 10:00ak baino lehen



Zenbait haur, xakean. HITZA

L. MONTES

III. Urdina Txiki Saria jokatu-ko dute igande honetan, goi- zeko hamarretan. Txapelketa xake azkarrean jokatu dute, jokalariek eta partida ba- koitzeko bost minutura.

III. Urdina Txiki Sarian edonork eman dezake izena, «guztientzat irekia» baita, antolatzaileen esanetan. Ber- raz, parte hartu nahi duenak txapelketa hasi baino pixka- txo bat lehenago elkartearen egoitzan agertu besterik ez du.

ERRIFLEA SAIGAI

**SAUER 200 ERRIFLEA CERROJO**  
2 munizio kargagailu  
**300WM** kalibrekoa  
ukimen leuneko dispositibo tiratzaileak  
**APEL** muntaketa originala  
**SAVÁROVSKI-HABITZCHT** bisorea  
1,5-6x42 NOVA  
mug.: 615 747 302

ARETO FUTBOLA ▶

## Denboraldiko lehen porrota

Laskorainek 7 eta 5 galdu du Intxaurrendoko Inter taldearen kontra

### I. ETXEBESTE

Laskorainek 2004-2005 denboraldiko bere estreinako porrota jaso zuen joan den larunbatean Monsen. Horitxoek Intxaurrendoko Inter izan zuten aurrean, oraindik sekula garaitu ez duten arerioa, eta oraingoan ere «ezinezkoa izan da pizti beltza ehizatzea». Baleko partida jokatuagatik, bigarren zatian batik bat, Laskorainek 7 eta 5 galdu zuten eta esku hutsik eta kopetilun bueltatu behar izan zuten Tolosara.

Ikastolakoen ikuspuntutik,

norgehiagokak bi erdi zeharo ezberdin izan zituen. Aurreneko hoge minutuetan, eta txapelketako burua izateak dakarren erantzukizunaren zama-gatik edo, Laskorain ikarati bat ikusi zuten Monsera hurbildutako zaletuek. Horitxoak ez ziren gai izan donostiaren jokari behar bezalako erantzuna emateko, eta gogotik egin behar izan zuten lan atzealdean garaipen aukera guztiak ez galtzeko. Atsedenealdian markagailuak erakusten zuten 1 eta 0-ekoak partida irekia uzten zuten, hiru puntuak airean.

Bigarren zatia jokatzera aldageletatik irten zen Laskorainek ez zuen hamar minutu eskas lehenago, aldageletara sartu aurretiko inolako antzarik izan; «taldearen metamorfosia begibistakoa zen». Oraingoan Laskorain ausartiarago bat antzematen zen, «onuragarri suertatu ohi den lotsagabekeri-tantta horrekin», eta konfiantza eta fedea borborka zerion bere jokoiari. Honela, hoge minutu zoragarri ikusi ahal izan ziren Monsen, golez jositakoak, eta emaitza ez zen azken unera arte erabaki.

Horitxoek, Gilen, Saldiasen eta Altunaren golei esker —azken honek hiru sartu zituen, bere kemenaren eta sasoi itzelaren beste adibide bat oparitu— bost bider berdindu zuten markagailua, bana, bana, hiru, launa eta bosna, baina gezurra badirudi ere, ahalegin honek ez zuen amaieran saririk izan. Bost faltekin ziren bi taldeak; azken minutu eta erdian epaileek bi falta gehiago adierazi zituzten eta biak Tolosarren aurkakoak izan ziren. Hiru puntuak ez ezik, horitxoek itxaropenek ere orduantxe aldegin zuten ihesi.

Urrearen baliokoa izan ohi da porrot bati garaipen batekin jarraitzea, eta horren bila borrokatzea besterik ez zaio gelditzen Laskoraini larunbatean

Bizkaiko Muskizen aurka jarduten duenean.

Javi delegatua, Egizabal entrenatzailea eta Domentxe, Telletxea, Saldias, Barriola, Beldarrain —hasierako bosteko—, Yustos, Altuna, Amatriain, Gil eta Arregi jokalaririk ari ziren Intxaurrendon.

### Neskak, lider

Alonsotarren gidaritzapean azken denboraldiotan hain lan bikaina burutzen ari den Laskorainen nesken taldea lider ipini da bere txapelketan Goierri UPV-ri 3-4 irabazita. Iker Arregik eta Joxetxo Otxoak «ederki asko prestatzen dituzten bi filialen emaitzak», berriz, honakoak: Laskorain 5- Zaldibi 4 eta Elgoibar 6- Laskorain 3.

ARETO FUTBOLA ▶

## «Azkenean, lortu dugu lehenengo garaipena»

7-1 irabazi zuen Hegoalde Meiras taldearen kontrako partidua; «jokoaz gozatu» zuten Tolosakoek, zaleen aurrean

### HEGOALDE ▶ 7

### MEIRAS ▶ 1

**Hegoalde.** Sonia Tome, Itziar Aldezabal, Isa Barrio, Miriam Prados, Maider Lopez, Amaia Azpillikueta, Esther Videra, Gema Celaya, Nerea Salazar, Miriam Arana eta Edurne Agirretxe. Entrenatzaileak: Virginia Amilibia eta Maite Argote.

**Meiras.** Marta Maria Ignacio, Alba Maria Barcia, Andrea Sardinan, Cristina Granados, Carolina Leira, Candida Maria Lago, Maria Minguez, Patricia Lago, Maria Isabel Paz, Paula Perez eta Natalia Seco. Entrenatzailea: Carlos Garcia Bermudez.

**Golak.** 1-0: Miriam Aranak (03m.); 2-0: Maider Lopezek (06m.); 3-0: Maider Lopezek (18m.); 4-0: Maider Lopezek (20m.); 5-0: Isa Barriok (23m.); 6-0: Maider Lopezek (24m.); 7-0: Miriam Aranak (28m.); 7-1: Candida Maria Lagok (39m.).

**Epaileak.** Jesus Casas Casas eta Eduardo Llano Jimenez.

### IRATXE ETXEBESTE

Hegoalde, Tolosako areto futbol taldeak etxean jokatu zuen larunbatean. Partida, ohi bezala, 19:00etan izan zen Tolosako kiroldegian, Berazubin. Aurkaria, Meiras, Ferroleko (Galizia) taldea.

Modu lasai batean hasi zen partida, eta ez zen urduritasun handiegirik ageri zelaian. Hasieran, behintzat, baloiak ez zuten jabe nagusirik. Hirugarren minutuan Aranak atearren erdi-erdian sartutako golari esker, ordea, Hegoalde esnatu eta bere jokoa egiten hasi zen. Horrela, laugarren minututik aurrera jokoa asko bizitu eta

golaren bila hasi zen etengabe Hegoalde. Meiras, berriz, nahiko galdurik ibili zen zelaian, nondik jo ez zekiela eta baloia hanka artean izateko aukera gutxiarekin. Zazpigarren minutuan izan zuten Meirasek lehenengo gol aukera aterako jaurtiketa baten bidez, baina Candidaren baloia atetik kanpo joan zen. Seigarren minutuan, zartada gogor batez, Maiderrek bigarren gola ekarri zuen Hegoaldera. Baloa asko mugituz eta talde jokoa ongi betetz jokatu zituen ondorengo minutuak talde tolosarrak, baina gol aukera asko izan arren, ate barnera sartzea falta zen.

Ez zuten etsi, ordea, eta 18.

minutuan Maiderrek hirugarren gola ekarri zuen. Artean, Meirasek ez zuen aldaketarik jasan, eta bere horretan jarraitzen zuten, baloia nola eskuratu ez zekiela, eta erabateko defentsan. Lehenengo zatia amaitzeko hamar segundo falta zirela, ertzetik ateratako baloi bat buruz jo eta Maiderrek 4-0 marraztu zuen markagailua, Meirasek jokalariren harridurarako. Lehenengo zatiak Hegoalderen nagusitasuna islatu zuen lau golekin; Meiras, berriz, jokatzeko aukera gutxi izanik, nahiko galduta ibili zen.

Bigarren zatia hasi bezain laster, Meiras gogor aritu zen, Hegoalderen atera urreteratu eta jokoaren jabe zela erakusteko indarrez. Asmo horrek, ordea, ez zuten asko irau, izan ere, hogeita hirugarren minutuan Isak jaurtitako baloiak eskubiko zurtoina jo eta bosgarren gola ekarri zion Hegoalderi. Meiraseko neskak burumakur ziren berritoe. Maider Lopez, ordea, indartsu zegoen, eta 6-0eko ezarri zuen markagailuan hogeita hirugarren minutuan. Hiru minutu beranduek, Aldek jaurtitako baloia Meirasek atezainaren hanketan trabatu eta Aranak dudakoa zena gol bilakatu zuen. Partida



## Chafee, aurrera Beotibarren

**ESKU PILOTA ▶** Ikusmin handia piztu zuen astelehenean Beotibarren Juan Martinez de Irujoren —ezkerrean— eta Ismael Chafeeren —eskuinean— aurkako partidak. Eta ezustean harrapatu zituen zale bat baino gehiago partidaren emaitzak. Irujo zen favorito, eta haren alde atera ziren apustuak; baina Chafeek 14-22 irabazi zion Iberokoari, lehia eta erritmo biziko norgehiagokan. Garaipen honekin, aurrera egin du Chafeek Lau t'erdiko Txapelketan. Aurreko partidatan Asier Olaizolari irabazi zion; Txapelketako ezustekoa izaten ari da Chafee. I. TERRADILLOS

amaitzeko minutu bakarra falta zenean sartu zuen gola Meirasek, Candida Maria Lagoren eskutik, hain zuten ere. 7-1eko emaitzarekin amaitu zen partidua.

### Hiru jokalariren debuta

Amaia Azpillikueta, Esther Viderak eta Gema Celayak debutatzeko aukera izan zuten Meirasen kontrako partiduan.

Azkenean, Hegoalde hain beharrezko zuen garaipena lortu zuen atzo, hiru puntu ba-

liotsu eskuratu. Tolosakoak hamaikagarren dira sailkapenean, 4 punturekin. Femesala Elx liderra, 18 punturekin, urrutitu dute; baina aurreko postuetan dituzten taldeei heltzeko eta pasatzeko aukera dezente badituzte ordaindik ere.

Maite Argote, Hegoaldeko bigarren entrenatzailea, pozik agertu zen garaipenarekin: «Azkenean irabazi egin dugu», zioen pozarren. «Lehen garaipena lortu dugu, baina jokoa ere gozatu dugu, eta hori oso garrantzitsua da guretzat».

## ZIZURKIL ▶ LITERATURA



Hirugarren edizioa da aurtengo hau. Aurreko bi urteetan ere parte-hartzea handia izan zen. GARAZI AZKUE

# Abian da Teodoro Hernandorena III. Ipuin Lehiaketa

Euskaraz idazteko zaletasuna sustatzeko helburuz antolatu du Udalak lehiaketa; berriro gaia aukera askekoa izango da

NOELIA LATABURU

Zizurkilgo Udaleko Euskara Sailak Andoain, Aduna, Alkiza, Asteasu, Amasa, Villabona, Anoeta, Irura eta Zizurkilgo herriarren artean idazteko zaletasuna sustatu nahian Teodoro Hernandorena III. Ipuin Lehiaketa antolatu du. Aipatu herrietako biztanleek hartu dezakete parte lehiaketa honetan eta partaideek oinarri batzuk bete beharko dituzte.

Lehenik eta behin, aurkezten diren lanek egile bakarra izan behar dute eta, era berean, partaide bakoitzak gehienez bi lan aurkez ditzake. Lan bakoitzaren hiru kopia entregatu beharko dira abenduaren 1a bitartean, egun hau ere barne, 14:00ak baino lehen Zizurkilgo udaletxean edo udal bulegoetan. Lan honen gaia aukera askekoa izango da eta erabili beharreko hizkuntza, noski, euskara izango da.

Lanen luzera ere zehaztua

dago, eta honen arabera bost taldeetan banatuko dira. A mailakoek orrialde bateko luzera izango dute; B mailakoek, berriz, bi orrialdeetakoak; C mailakoek gutxienez 2 orrialde eta gehienez lau orrialde izan beharko dituzte; D mailan lau eta zortzi orrialde artekoak daude eta azkenik, E maila bost eta hamabi orrialde artekoena izango da.

Aldi berean, maila horietako bakoitza adin ezberdinei dagokio. A mailan, sei eta zortzi urte bitartekoak aurkeztuko dira. B mailan, aldez, bederatzita eta hamarika urte bitartekoak. Hirugarren mailan, hamabi eta hamahiru artekoak daude; D mailan, hamalau eta hamasei artekoak eta, azkenik, E mailan hamazazpi urtetik gorakoak.

Lanaren izenburuaren alban egilearen izengoitia eta adina jarri beharko dira eta honekin batera sobre bat aurkeztuko da. Barruan lanaren egilearen izen-deiturak, helbidea, te-

lefonoa eta adina jarri beharko dira. Kanpoan, berriz, lanaren izenburua eta egilearen adina ipiniko dira soilik. Hau guztia egilearen nortasuna gordetzeko egingo da.

Behin lanak jasota, epaimahai aditu batek erabakiko du zeintzuk izango diren sarituak. Zizurkilgo Udalak bere ordezkaria izango du epaimahai horretan eta idazkari bat ere izendatuko da. Maila bakoitzean bi sari banatuko dira. Lehenengo bi mailetan opariak izango dira. C mailan, lehen saria 90 euro izango da, eta bigarrena oparia. D mailako lehen saridunak 150 euro jasoko ditu eta bigarrenak oparia. Azken mailan, lehen irabazleak 450 euroko saria jasoko du eta bigarrenak oparia. Sari banaketa abenduaren 30ean egingo dute.

Sarituak izan ez diren lanak itzuli egingo dira eta urtarrilako 7 aeta 16a bitartean jaso ahal izango dira.

## VILLABONA ▶

## Ikasle Eguna Villabonan izango da aurten

Gaur, 12:00etan, Donostiako Amara Berri auzoko CRAJ Gaztegunean —Txuri Urdinen alboko eraikinean— aurkeztuko dituzte prentsurrekoan azaroaren 20an Villabonan izango den Ikasle Egunaren nondik norakoak. Ekitaldien, kontzertuen, hitzaldien eta egun honetan zehar izango denaren berri emango da gaurkoan Donostian. Ikasle Eguna Ikasle Abertzaleak-ek antolatu du Nazioarteko Ikasle Egunaren testuinguruan. Besteak beste, eta gaur zehaztuko den arren, harrera ekitaldia, ikasle olimpiadak, bazkaria, bertsolariak eta kale animazioa izango dira.

## ANOETA ▶ AHT

## Azoka jendetsua astea amaitzeko

Ingandean jende ugari bildu zen herriko plazara Anoetako baserri eta artisauek eskaini zuten azokan. Ondoren egin zuten babarrun jatean ere parte-hartze zabala izan zen, eta hirurogei pertsona inguru bildu zen Etxeberri baserriko babarrunak jatera. AHT Gelditu! Elkarlanak azaroaren 6an Donostian egingo den manifestazioa elkarrekin joateko deialdia egiten du; 17:00etan herriko plazan geratu dira, trenez joateko.

## ANOETA ▶

## Ibarretxe Planari buruzko eztabaida gaur

Anoetako Eztabaida Bilguneak eztabaidak antolatu ditu, hilabete ezberdinetan zehar garatuko direnak. Lehenengo gaur izango da, 19:00etan, Gaztetxean. Eztabaida hauetan Ibarretxe Planari izango da hizpide, eta jendeak hitzaldioan parte hartuko duela espero dute antolatzaileek. Datorren hilabeteko ekintzak oraindik ez dituzte zehaztu, baina gaia bera izango da.

## VILLABONA ▶

## Txirindularitza jardunaldiak kirol astearen barruan

Gaur, VIII. Txirindularitza buruzko jardunaldien barruan eta Kirol Astearekin bat eginez, txirindulari profesionalen arteko mahaingurua izango da, 20:00etan, Gurea aretoan. Aurten Aitor Garmendia txirindularia omenduko dute. Bertan hizlariak Lampre taldeko Patxi Vila, Euskalteleko Haimar Zubeldia, eta AG2R taldeko Iñigo Chaurreau eta Mikel Astarloza izango dira. Guztien moderatzailea Xabier Usabiaga izango da. Bihar, berri, ordu eta leku berean, Euskaltel taldeko Iban Mayo eta Iñigo Landaluze eta Relax taldeko Alberto Martinez izango dira.



Azoka jendetsua izan zen. HITZA

## VILLABONA ▶

## VII. Areto Futbol torneurako izen- ematea irekita

Aurten VII. Areto Futbol Tornea antolatu dute Villabonan. Bertan izen eman nahi dutenek, Olaederra kiroldegira jo beharko dute, izan ere, bertan jaso daitezke bete beharreko orriak. Behin orriak beteta, kiroldegian bertan entregatu beharko dira, azaroaren 6a baino lehen. Egundik aurrera ez dira izen-emateak jasoko eta epeaz kanpo daudenak torneotik kanpo geratuko dira.

ARDIKI EGUNA ▶

# Orendainen geratu da Gazta Lehiaketako lehenengo saria

Jose Antonio Garmendiak irabazi du Ardi Eguneko Gazta Lehiaketa Zaldibian



Jose Antonio Garmendia, Zelaia baserriaren atarian, lortutako txapela eskuetan duela. O. ESKITXABEL

## OIAIA ESKITXABEL

Urriaren azken igandeetan ohikoa bihurtu denez, Ardi Eguna izan zen Zaldibian igandean. Goizetik odolkgileak prestaketa lanean zebiltzan; perratokia eta artisautza feria ere ikus zitezkeen.

Eguerdian, mondeju eta gazta lehiaketak izan ziren. Azken honetan, hemezortzi partehartzaile izan ziren eta Orendaingo Jose Antonio Garmendia izan zen nagusi. Artzaina lanbidez, Zelaia baserrian 800 ardi ditu Garmendiak, eta egiten duten gazta «suabe antzekoa» dela azaldu du. Saria eskuratzea askotan zorte kontua ere badela esan du. «Mota

honetako lehiaketak gure gazta ezagutzera emateko egokiak diren arren, ez gara lehiaketa askotara aurkezten», azaldu du Garmendiak. Anaiarekin eta emaztegaiarekin aritzen da lanean eta ardi antzuekin aitak ere laguntzen diela adierazi du orendaindarrak.

VII. Gazta Lehiaketako bigarren postua Iosu Oiarzabal oretarrak lortu zuen; Gerardo Garmendia zaldibierra hirugarren izan zen.

### Mondeju onena, herrira

Mondejua izan zen, gaztarekin batera, eguneko protagonista. Hogeitahiru lagunek hartu zuten parte X. Mondeju Lehiaketa-

ketan; sailkapeneko lehenengo postuetan aurpegi ezagunak ikus zitezkeen. Lehenengo saria, herrian bertan geratu zen. Maria Luisa Moreak lortu zuen garaipena —izatez amezketarra—: «Sekretua, beste gauza askotan gertatzen den bezala, egindakoa mimo askorekin egitean datza». Kaietana Etxeberria orendaindarrak eta bere alaba Martina Garmendiak lortu zituzten bigarren eta hirugarren postuak, hurrenez hurren.

Ama-alabak gustura azaldu dira lortutako sariarekin. Iaz, lehenengo saria lortu zuen Etxeberriak: «Ez dut errezeta konkreturik jarraitzen, buruan ditudan neurriekin egiten ditut

## ARDIKI EGUNA ▶

### MONDEJU LEHIAKETA

- ▶ Maria Luisa Morea.
- ▶ Kaietana Etxeberria.
- ▶ Martina Garmendia.

### GAZTA LEHIAKETA

- ▶ Jose Antonio Garmendia.
- ▶ Iosu Oiarzabal.
- ▶ Gerardo Garmendia.

mondejuak. Eta beti puntu berdintsuan ateratzen zaizkit», azaldu du Kaietana Etxeberriak.

Hori bera esan omen zion Luis Mokoroak, Zaldibiko X. Mondeju Lehiaketako epaimahaiko kideak; mondejuak beti puntu horretan ateratzeko aditua izan behar dela, alegia. «Beti bezala, amak erakutsi zidan bezala egin ditut mondejuak; eta nire seme-alabei horrela erakutsi diet», azaldu du Kaietana Etxeberriak.

Amaren ondoan, «gustura» aritzen da Martina Garmendia mondejuak egiten: «Orendaingo baserrian egin genituen lehiaketarako mondejuak», azaldu du ikaztegiaren bizi den alabak. Amari laguntzera askotan joan da Zaldibira Garmendia: «Zortzi urte inguru emanago ditugu lehiaketara etortzen», azaldu du.

Miel Mari Irastorza Ardi Kofradiako lehendakariak adierazitakoaren arabera, mondejuen maila ona izan zen: «Lehen, mondejuak pisuagoak izaten ziren. Orain, berriz, arindu egin dira, eta maila ona dago».

## ALEGIA ▶

### Hitzaldia eskainiko du Moira Zeberio

Ariketa fisikoarekin eta psikologikoarekin eta komunikazioarekin lotutako ohiurren berri emango du Moira Zeberio tolosarrak gaur Jubilatue elkartearen izango den hitzaldian. *Komunikazioa eta adiskidetasuna: bizimodu osasuntsuarako giltzarriak* lelopean elikadura higieena, ariketa eta aisia... izango dituzte mintzagai; hitzaldia, 16:30ean hasiko da.

## ALEGIA ▶

### Gabonetako loteria salgai jarriko dute

Datorren azaroaren 16an, 11:00etatik 12:00etara, jarriko dute salgai jubilatuek gabonetako loteria. Azaroaren 30a bitarte bazkideek erosi ahal izango dute bost euroren truke. Data horretatik aurrera, eta txartelak amaitu bitarte, nahi duten guztiek erosi ahal izango dute. Zerbakia, 0.251-a da.

## ALBIZTUR ▶

### KZgunea arratsalde egongo da irekita

Azaroan zehar KZgunearen ordutegia 16:00etatik 20:00etara izango da. Nagusiweb ikastaroa —10 orduko ikastaroa— azaroaren 8tik 12ra, 16:00etatik 18:00etara izango da. Internet KZgunea ikastaroa —20 ordukoa—, berriz, azaroaren 15tik 26ra, 16:00etatik 18:00etara edo 18:00etatik 20:00etara. Interesatuek 943 65 06 85 telefonora deituta eman dezakete izena.

## iragarki laburrak ▶



**Aizarnazabal.** Txakolin saila duen 50.000 m<sup>2</sup>-ko lursaila salgai.

Nekazal ustiapenaren bitartez bi familientzako etxea egiteko aukera dago.

**Anoeta.** Duplex etxebizitza saltzen da. Garajea aukeran.

**Anoeta.** 125 m<sup>2</sup>-ko eta garajea duen duplex etxebizitza ederra dago salgai.

**Belauntza.** 1.060 m<sup>2</sup>-ko pabilioia salgai; erabat argitsua eta garabiarekin.

**Belauntza.** 225 m<sup>2</sup>-ko pabilioia alokatzen da; erabat argitsua da.

**Donostia.** 104 m<sup>2</sup>-ko etxebizitza

salgai Colon pasealekuan. Ikuspegi zoragarriak ditu eta erabat berritua dago.

**Donostia.** Rodil zeharkalean, 45 m<sup>2</sup>-ko apartamentua saltzen da; erabat berritua dago eta altzariz hornitua. Kanpoaldera begira.

**Donostia.** 94 m<sup>2</sup>-ko bulegoa saltzen da, Hotel Costa Vasca inguruan.

Banatzeko aukera.

**Gaintza (Nafarroa).** Berrikuntza behar duen hirugarren solairuko baserria salgai.

**Ibarra.** 95 m<sup>2</sup>-ko etxebizitza salgai; oso eguzkitsua da eta kanpoaldera

begira dago. Ikuspegi zoragarriak ditu.

**Ibarra.** 75 m<sup>2</sup>-ko pabilioia eta 2.500 m<sup>2</sup>-ko lur saila salgai. Nekazal ustiapenerako egokia.

**Ibarra.** 75 m<sup>2</sup>-ko etxebizitza. Lehenengo pisua; kanpoaldera.

**Lasarte.** Egoera bikainean dagoen 62 m<sup>2</sup>-ko etxebizitza, kanpoaldera begira.

**Lizartza.** 14.000 m<sup>2</sup>-ko pabilioiak salgai, eraikuntza berrikoak.

**Lizartza.** Hiru solairuko baserria salgai; 100 m<sup>2</sup> ditu solairu bakoitzean eta 30.000 m<sup>2</sup>-ko

lursaila. Berritzeko.

**Segura.** 90 m<sup>2</sup>-ko bi etxebizitza salgai; erabat berritua.

**Tolosa.** San Esteban auzoan, 76 m<sup>2</sup>-ko etxebizitza dago salgai. Hiru fatxada ditu, altzariak ditu eta oso eguzkitsua da.

**Tolosa.** Agintari kalean 75 m<sup>2</sup>-ko etxebizitza dago salgai; eraiki berria. Igogailuarekin eta trastelekuarekin.

**Tolosa.** 50 m<sup>2</sup>-ko berritutako atikoa salgai; altzari batzuk baditu.

**Tolosa.** Gudari kalean 110 m<sup>2</sup>-ko etxea saltzen da; kanpoaldera begira. Eguzkitsua da; igogailuarekin.



## IBARRA ▶ FUTBOLA

# Beste porrot bat joko ona egin ondoren

Ibarrak galdu egin du berriro, partida osoan etxeok mendean hartu arren

IÑIGO TERRADILLOS

Harrigarria da aurtengo denboraldian Ibarra areto futbol taldeari gertatzen ari zaiona. Partidetan jaun eta jabe izan arren ez du lortzen irabaztea, eta, ondorioz, puntuak batzea; epaileen lan txarragatik, zorte txarragatik edo defentsan egindako akatsengatik, baina kontua da Ibarrak atzera egiten duela sailkapenean asteek aurrera egiten duten heinean.

Pasa den larunbatean Ultzaman jokatu zuen, izen bera daraman taldearen aurka. Nafarren presentzia ia nabari ez bazen ere, eta Ibarrak hasierako unetik gehiago zela erakutsi arren, etxeok irabazi zuten.

Ultzamak 6 korner atera bazituen, Ibarrak 20 alditan egin zuen gauza bera: «Atea hutsik dagoela eta 50 zentimetroa hiru saiakeratan huts eginez gero, zutoinean lau alditan jo, penalti bikoitz batean huts egin eta atezainaren aurrean hainbat okasio alferrik galdu, hiru gol sartu ordez, zortzi edo hamar izan zitezkeen gutxienez» Ibarrak egin zitzaizkeenak.

Egia da epaileek egindako lana ez zela txalotzekoa izan, baina ezinezkoa da beti errundunak taldeak kanpo bilatzen aritzea eta larunbatekoan jokalariek galdu zutela onartu behar da, aurkako taldea baino hobe zela frogatu arren.

Ibarrako taldeak mendean hartu zuen segituan etxeok eta laugarren minutuan aurretik ziren Hautsik baloia sare barruan sartu ondoren. Minutu bat oraindik igaro ez zenean Ultzamak berdintzea loru zuen kontraeraso batean. Hiru minutu geroago Ibarrak defentsan egindako huts egitea Ultzamak aprobetxatu eta 2-1ekoa egin zuen. Bederatzigarrenean, falta baten ondorioz etorri zen etxeko taldearen hirugarrena, eta atsedendira hiru minutu geratzen zirenean beste kontraeraso batean 4-1ekoa iritsi zen. Jokaldi hau eta gero Cristianek ibarrentzat bigarrena egin zuen.

Bigarren zatian Ibarrak ondo jokatu jarraitu zuen, baina, berriro ere etxeko taldea hasi zen golak egiten eta 5-2 aurreratu ziren segituan. Eta Ibarra saiatzan ari bazen ere Ultzamak buruturiko kontraeraso batean seigarrena egin zuen. Azken gola Pradosek sartu zuen, 6-3koa eginez.

## Jubenilen liga

Lauburuk Tomas Mingot-en aurka jokatu zuen eta 12-5eko emaitzarekin hartu zituzten mendean. Aipatzekoa da hiru jokalarik lehenengo taldean jokatu badute ere 30 gol egitea lortu dutela eta zortzi beste ez dituzte jaso haiek.

## IBARRA ▶ ARGAZKI ERAKUSKETA

## Aurtengo San Bartolome jaiak argazkietan ikusgai

Atzo zabaldu zen argazki erakusketa Ibarrako Benito Izagirre kultur etxean



Aurtengo jaietako argazki bilduma handia dago ikusgai. I. TERRADILLOS

I. TERRADILLOS

Ibarrako Udal Kultura eta Gazteria Sailak aurtengo San Bartolome jaietako argazki erakusketa antolatu du, eta atzotik ikusgai da Ibarrako Benito Izagirre kultur etxean.

Festa Batzordeko kideen lanari esker, jaietako ekitaldien irudi grafiko anitz jaso ahal izango da. Era berean, hainbat herritarrek «modu altruistan» entregatu dituzten argazkiak aurtengo jaietako ondare grafiko garrantzitsu bilakatu dira eta antolatzaileek pertsona horiek herriarekiko izan duten eskuzabaltasuna eskertu nahi izan dute.

Antolatutako jaietako argazki erakusketak egindako ekitaldien isla izatea du helburu. Nahiz eta material guztia erakusteko aukerarik ez izan, egindako aukeraketak

herriarentzat nabarmenki garrantzitsua den jaialdia isla-tzea nahi izan dute.

## Argazkiak eskuratzea

Bestalde, erakusketara hurbiltzen diren ikusleek bertan dauden argazkien kopia eskatu ahal izango dute; kopiak eskuratzeko, prestatu dituzten eskari-orriak bete beharko dira Kultur Etxeko harreran.

San Bartolome jaietako argazki erakusketa azaroaren 2tik abenduaren 3ra bitarte izango da zabalik Ibarrako Benito Izagirre kultur etxean. Erakusketa ikustera joateko ordutegia, asteleheneetik ostiralerara, 10:00etatik 13:00etara eta 15:30etik 21:00etara izango da. Gainera, hemendik egun gutxira argazkiak proiektore bidez erakusteko asmoa azaldu dute.

## TELEFONOAK ▶

## LARRIALDIK

▶ 112

**Alegialdea.** Osasun z.: 653212  
**Anoetaledea.** Medikua: 65 23 39  
**Asteasu.** Medikua: 69 24 23  
**Berastegi-Elduain.** 68 33 61  
**Bidegoian.** Medikua: 68 11 34  
**Ibarraldea.** Osasun etx.: 672411  
**Irura.** Osasun zentroa: 69 07 20  
**Leitza.** Osasun z.: 948 510800  
**Lizartza.** Medikua: 68 20 77  
**Tolosa.**  
▶ Anbulatorioa, larrialdia: 461111  
▶ San Esteban: 00 68 00  
▶ Gernikako arbola: 00 69 00  
▶ Asunzion klinika 67 57 99 - 67 53 90 (larrialdia)  
▶ Udaltzaingoa: 67 58 58  
▶ DYA: 67 25 36  
▶ Gurutze Gorria: 67 48 88  
▶ Ertzaintza: 53 88 20  
**Villabona-Aiztondo.**  
Anbulatorioa: 00 69 70  
**Zizurkil.** Aiztondo zerb.: 693930

## GARRAIOAK

▶ Renfe Tolosa: 65 28 89  
▶ Donostiako autobusa: 36 17 40  
▶ Taxia: 67 04 20  
▶ Taxia (Leitza): 608 873016

## KOMUNIKABIDEAK

▶ Galtzaundi: 65 50 04  
▶ Aiurri aldizkaria: 30 07 32

## EUSKALTEGIAK

▶ Arramele-AEK: 67 12 14  
▶ Ika (Leitza): 948 61 07 76

## GUARDIAKO FARMAZIA

**Gaur.** Quetglas M.A., Euskal Herria, 46 (Ibarra), 67 32 74.  
Erbiti, O., Lizarraga 7, (Leitza), 112

## TOLOSALDEKO HITZA

**Publizitatea.** 661 67 88 18.  
tolosaldean\_publici@tolosaldeko hitza.info  
**Tolosa.** 687 41 00 82 - 687 41 00 33.  
tolosa@tolosaldeko hitza.info  
**Villabona-Aizt.** 687 41 00 22.  
villabona\_aiztondo@tolosaldeko hitza.info  
**Anoetaledea.** 687 41 00 22  
anoetaledea@tolosaldeko hitza.info  
**Ibarraldea.** 687 41 00 32.  
ibarraldea@tolosaldeko hitza.info  
**Alegialdea.** 687 41 00 34.  
alegialdea@tolosaldeko hitza.info  
**Leitzalde.** 687 41 01 18.  
leitzalde@tolosaldeko hitza.info

## iragarki laburrak ▶

## GALDUTAKOAK

**Txakurkumea.** Hiru hilabeteko txakurkumea galdu da Gaztelu eta Berastegi artean. Deitu: 943 67 20 10 edo 943 67 58 72

## SALGAI

**Soinu ekipoa.** Soinu ekipoa osoa salgai. Argibideetarako deitu: 943 67 48 06 / 943 11 77 38.

## BERROBI ▶

## 'Milioi bat kilometro lur azaletik'

Kutxaren laguntzari esker eta Berrobiko Udalak antolatuta, Nairobitarra kultur elkartearen *Milioi bat kilometro lur azaletik* proiektioa ikusteko aukera izango da bihar 21:00etan Berrobiko Etxolan. Afrika, Europa eta Amerikan egindako espedizioetan oinarritutakoa da eta Josu Izuetak azalduko ditu lurralde horietan 23 urtetan bizitakoak.

## BELAUNTZA ▶

## Biasteriko bodegara irteera antolatu dute

Ardoaren munduan murgiltzeko moduko irteera antolatu du Udalak. Bodega, kalatuak eta kobazuloak bisitatzearaz gain, ardo ezberdinen dastaketa egin ahal da Biasteriko irteera horretan. Izena emateko bihar izango da azken eguna eta 25 euro ordaindu beharko dira. Horretarako Belauntzako Kultur Etxera jo behar da edo 943 67 00 20 zenbakira deitu.

## OREXA ▶

## Diapositiba emanaldia gaur ganbaran

Orexako Kultur Hamabostal-diaren baitan, gaur basamortuei buruzko diapositibak izango dira ikusgai udaletxe ganbaran. Indo eta bere lagunek aurkeztuko dituzte argazkiak eta horiei buruzko azalpenak emango dituzte. 21:30etik aurrera paisaia ederrez gozatzeko aukera izango da, beraz, eta bihar 1000. urteko euskaldunak hitzaldia izango da 21:30ean.

## BERASTEGI ▶

## Donostiara irteera antolatu dute

Berastegiko Gaztainondo elkartekoek Donostiara egun-pasa antolatu dute datorren azaroaren 9rako. Egun-pasa honen barruan, Donostiako Aquarium-a bisitatzea joango dira eta bazkaria ere bertan izango da. Irteera honetara joatera animatzen direnek, bazkide badira 24 euro ordaindu beharko dute eta gainerakoek, berriz, 26 euro, elkartean bertan.

LEITZA ▶ KIROLA

# Emaitza ona lortu eta joko ona erakutsi du Aurrerak asteburuan

4 eta 2koarekin garaipena eskuratu du talde leitzarrek; Iriarte pilotariak, berriz, ez du DV torneoan jarraitzerik



Aurrera futbol taldea, bigarren doa Nafarroako lurraldeko ligako sailkapen orokorrean. JAIONE ASTIBIA

JAIONE ASTIBIA

Gustura gelditu ziren jokalariek, gustura prestatzaileak, gustura zaletuak. Lehengo igandean, etxean, Arkixkilen jokatu zuen Aurrera K.E. futbol taldeak Bidezarraren aurka eta 4 eta 2ko emaitzarekin, garaipena eskuratu zuen.

Baina ez da garaipena eskuratzeko bakarrik, denak ere hain gustura agertzeko arrazoia. Izan ere, leitzarrek oso joko ona erakutsi baitzuten igandean. Partiduko lehendabiziko hogeita minutuetan, bat bestearren jarraian, jokaldi arriskutsu asko eragin zituzten Salazarren mutilek eta horrek, aurkaria ere menperatzea ekarri zuen: partiduen aurreneko zatia bukatzerako jada, lau tan-

toen jabe eginak zirelarik, Bidezarrak bakarrik sartu zieten bitartean. Bigarren denboran, leitzarrek pixka bat lasaitu ere egin omen ziren, Hrrzari adierazi diotenez eta hor jaso omen zuten aurkariaren bigarrenena. Baina ondorioz, berriz ere, jokoan erreparatuz eta nagusitasuna erakutsiz, lan asko egin da, aldeari eustea lortu zuten, azkenik markagailua bere horretan mantenduz, alegia, 4-2koan, etxekoan alde.

Partidua amaitutakoan lana ongi egindako lasaitasunarekin ageri ziren guztiak. «Taldea, pixkanaka-pixkanaka hobetzen ari da eta aurrerantz ere bide honi eutsi beharko genioke», zioten. Aipamen berezia merezi izan zuen Jon Arangoa aurrelariak egindako lanak,

«ordezkapena arte, hustu egin da mutila», zioten zuzendari-tzatik. Gazte honek, gainera, bi gol sartu zituen —denboraldiko lehendabizikoak beretzat—. Beste biak, Eneko Barberia eta Mikel Azpiroztekin egin zituzten. «Gaurkoan ikuskizuna erakutsi dute gure jokalariek», adierazi zuten.

Esan, partidua ordu laurden bat beranduago hasi zela, arbitroa berandu azaldu zelako.

## Iriartek bukatu du

Bestalde, Mikel Iriartek ostiralez jokatu zuen DV torneo bere aurreneko partidua. Elurbe lagun zuela, eta 22-9 galdutik egin zuten, Mundiñano-Beobideren aurka. Ondorioz sariketarik kanpo gelditu da leitzarra.

LEITZA ▶ KULTURA



Itzalak taldeak prestaketa lan handia egin zuen emanaldirako. J. A.

## Itzalak taldea itzala eragiteko bidean da

Ostiralean eskainitako lehen kontzertua erabat arrakastatsu suertatu zaie

J. ASTIBIA

Itzalak taldeak ostiralean eman zuen bere lehen kontzertua, Leitzako zinema aretoa eta kanturako zaletasunaz gainera, horretarako gaitasuna ere badutela erakutsi zuten bertako kideek, inongo zalantzarik gabe.

Nerea Erbiti, Nerea Urbizu eta Iñigo Agirrek osatutako taldeak beraiek entzutera joandako entzuleen gozamenarako, hainbat euskal talde edota kantariren abestien bertsioak egin zituzten batik-bat: Itoitz-en *Clash Pistols*, Anari-ren *Galderak*, Dulce Pontes-ek abesten duen *Maitia nun zira...* Guztiak beraiek moldatutakoak eta bestalde, tartean beraiek sortutako beste hiru ere abestu zituzten: *Maldan behera*, *Nolako* eta *Blue boussa* doinuarentzat sortutakoa.

Bai batzuetan eta bai besteetan, kitarrajolearen musikarekin, bi kantarien ahotsa nabarmen gelditu zen, bai beren arteko bateragarritasunarengatik eta baita beren lehentasunagatik eta, aldi berean, indarragatik ere, elkarrekin na-

hiz bakarka egin zituzten abestietan erakutsi zuten. Sonorizazio onarekin, ikusleak hagitx gustura atera ziren han entzundakoarekin.

Adin guztietako jendea bazen emanaldian. «Kantuak ez nituen ezagutzen, ez nago musika modernoa entzuten ohituta, baina oso politik iruditu zaizkit. Oso ongi abestu dute. Batez ere ahotsak, asko gustatu zaitzuten, zioen adintsu batek ateratzerakoan; «Anariren abestiaren bertsioak harritu egin nau», zioen, berriz, gazte-ago batek.

Ekitaldia bukatutakoan adierazi zuten, Itzalak taldeko kideak oso urduri omen zeuden: «Sartzen hainbeste jende ikusi dugunean eta ezagunak, gainera: hura, bestea... Ez genuen hainbeste espero eta harritu eta ikaratu ere egin gara. Baina behin barrenera sartu garenean eta kantuan hasi... Azkenik, gustura aritu gara, oso gustura eta jendea ere halaxe nabaritzen genuen».

Aurrerantz, kantaldiak emanez, kantugintzaren bideari jarraituko dio Itzalak taldeak. Itzala eraginez.

# www.tolosaldeko hitza.info

▶ sar zaitez eskualdeko web atarira

▶ inkestak, eztabaidak, eguneko albisteak, argazki bildumak, zerbitzuak, zorion agurrak...

zorion agurrak bertan:



Harpidedunei banatua ▶ 2004ko azaroaren 3a, asteazkena ▶ II. urtea

GAURKO EGURALDIA

goizez



arratsaldez



beroena

17

hotzera

12

BIHARKO EGURALDIA

goizez



arratsaldez



///

HITZA-KO BEZEROEN ARRETA ZENBAKIA  
(zalantzak, harpide egiteko...)

Gipuzkoako Foru Aldundia



Eusko Jaurlaritzaren Kultura Saila



GAURKO EGURALDIA



943 30 43 46

## AGENDA ▶

### DEIALDIAK

**Ibarra.** Ibarra Xake Elkartek (IXE) ateak irekiko ditu bihar. Ostegunero 18:30etik aurrera irekita egongo da. IXEK Ibarra Benito Izagirre kultur etxean du lokala eta jolasteko materiala (taulak, piezak eta ordulariak), aldizkariak, liburua... daude bertan.

**Tolosa.** Jesusen Zerbitzarietan ikasi zutenek urteko bilera izango dute igandean, azaroaren 7an. Komentuan meza izango da 11:30ean eta ondoren bazkaria Usabal sagardotegian. Izen-ematea 943 67 30 81 telefonon.

**Tolosa.** Azaroaren 13an urteroko afaria egingo dute Zezen-plaza inguruan jao eta bizi direnek. Izen-ematea ohiko tokietan.

**Tolosaldea.** Azaroaren 7an Telleria abizena dutenek urteko bilera egingo dute Liernin, 13. urtez. 12:30ean meza eta 14:00etan bazkaria izango dute Mujika jatxean. Ondoren adin handienekoak omenduko dituzte. Izen-ematea 675 71 03 44 telefonon. Prezioa: 40 euro.

**Villabona.** Oinkari taldeak azken bi saioetako DVDak salgai jarri ditu, bakoitza 10 eurotan eta biak 15 eurotan. Astearte eta ostiralean Txermin auzoan Jesusen Bihotza ikastolaren ganbaran eros daitezke 18:30etik 22:30era.

### ERAKUSKETAK

**Ibarra.** 2004ko San Bartolome jaietako argazki erakusketa ikusgai Kultur Etxean. Abenduaren 3a bitarte. Ikusgai, astelehenean ostiralerara; ordutegia: 10:00etatik 13:00etara eta 15:30etik 21:00etara.

**Tolosa.** Nerea Lopez Lanzeta pintoreak bere koadroak ditu ikusgai Fronton kafetegian. Azaroaren 20a bitarte.



## Ezohikoa den azenarioa, baratzan

**ABALTZISKETA** ▶ Tomato, azelga... tartean aurkitu zuten orain dela aste batzu argazkian ikus daitekeen azenarioa. Abaltzisketako baratza txiki batetan ateratakoa da: «Luzeran antzeko azenarioak askotan ikusten badira ere, pisu aldetik atentzioa eman zigun», azaldu dute baratzaren nagusiek. Horrekin batera, «lehen kalabaza handiak izan ditugu baina tamaina horretako azenarioa jaso dugun lehenengo aldia da», gehitu dute. 700 gramoko pisua eta 29 zentimetroko luzera du azenarioak. Ohiko tamaina izan ez arren, zapoz, «gainontzeko azenarioen antzekoa» dela ziurtatu dute, izan ere, baratzetik hartu eta gutxira probatu baitzuten etxeok. Argazkian, Maialen eta Lorea Senperena ikus daitezke baratzan ateratako azenarioa eskuan dutela. HITZA

**Tolosa.** Maria Luisa Irastorza pintore tolosarraren lanak ikusgai, Lanbroa tabernan. Musika tresnak ikus daitezke lan gehienetan; eta olio eta beste teknika batzuk erabili ditu. Azaroaren 20a bitarte izango dira lanak bertan.

**Tolosa.** David Barandiaran billabonatarrak bere margolanen erakusketa jarri du ikusgai Sorron koadro dendan.

Olioak dira eta gai nagusia, hegaziak. Azaroaren 11 bitarte.

**Villabona.** Aitor Garmendia txirindulariaren 2004ko denboraldiari buruzko argazkiak ikusgai. Irrintzi elkarte, 19:00etatik 21:00etara.

### EMANALDIA

**Orexa.** Basamortuei buruzko diapositiba emanaldia, 21:30ean, udaletxe ganbaran, Ino eta bere lagunaren eskutik.

### HITZALDIAK

**Alegia.** *Komunikazioa eta adiskidetasuna: bizimodu osasuntsurako giltzarriak* hitzaldia Moira Zeberioaren eskutik. Jubilatuta elkarte, 16:30ean.

**Berrobi.** Iosu Iztuetaren eskutik, *Milioi bat kilometro lur azaletik* hitzaldia izango da

entzungen. Hiru urtetan zehar, Afrikan, Europan eta Amerikan zehar egindako espedizioetan ateratako argazkiak ikusteko eta beraie buruz aritzeko aukera izango da. 21:00etan. Etxolan.

**Tolosa.** Edorta Kortadi arte adituak *La religiosidad de las ermitas marianas* izeneko hitzaldia emango du bihar Santa Maria parrokiako etxean. 20:00etan.

**Villabona.** Txirindulari profesionalen arteko mahai inguru antolatuta dute biharko Kirol Astearen baitan; bertan, Patxi Vilak (Lampre), Haimar Zubeldiak (Euskalte), Iñigo Chaurreauk (AG2R) eta Mikel

## ALDIZKARIA ▶



**Aldizkaria.** Hi, gazte.

**Zenbakia.** 8. alea.

**Banaketa.** Doan.

**Gai nagusiak.** Bullying-a, eta hamahiru eta hamazazpi urte bitarteko gazteentzat ireki den Tolosako Gazte Topagunea.

**Beste gaiak.** Kontaktuak, ikastaroak, bekak, ekintzak, sexualitatea, diska, liburu eta filmeen txokoa eta agenda (erakusketak, deialdiak...)

**Argitaratzailea.** Galtzaundi Euskara Taldeak Tolosako Udaleko Gazteria Sailarentzat egindako lana.

▶ Nafarroa Etorbidea, 5. Tolosa  
▶ 943 65 50 04

▶ higazte@euskalerrria.org  
▶ www.galtzaundi.com

Astarlozak (AG2R) hartuko dute parte. Moderatzailea: Xabier Usabiaga. 20:00etan, Gurea zinemaren.

**Villabona.** Maria Teresa Gaztañagak, Gipuzkoako Poliklinikako nutrizionistak, *Produktu biologikoak eta transgenikoak, produktu osasungarriak?* gaia jorratuko du bihar Biltoki jubilatuta elkartearen. 17:00etan.

**Villabona.** Omenaldia egingo diote etzi Aitor Garmendia txirindulari ohiairi. Irrintzi elkarteak Kirol Astearen baitan antolatutako ekimena da. Omenaldia, Gurea zinemaren; 20:00etatik aurrera.

### ZINE-KLUBA

**Alegia.** Sam Mendes-ek zuzendutako *Camino a la perdicion* filma eskainiko dute Gaztearen. 21:30etik aurrera.

## ZORION AGURRAK ▶



URTE ASKOAN

Silvia. Zorionak familiaren partetik. Egun ona pasa dezazula.

# HITZA, zorion agurren tartea

Urtebetetzeak, urrezko ezteiak, ezkontzak, jaioberriak... zoriontzeko, etorri:

HITZAren egoitzara:  
Araba etorbidea, 5 behea - TOLOSA  
Udaletxe bulegoa - LEITZA

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago. Mila esker!